

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak ETEei diru-laguntzak emango dizkie kanpo-merkataritzarako teknikariak kontratatzeko

Laguntzak jasotzeko epea, 14.000 euro enpresako, urtarrilaren 7an amaituko da

Martes, 23 de diciembre de 2014

Nafarroako Gobernuak laguntza-[deialdi](#) bat abian jarri du Nafarroako ETEek kanpo-merkataritzako teknikarien kontratazioa finantzatzeko. Deialdi horrekin, haien esportazio-prozesuak erraztu nahi dira, Nafarroako enpresa-sarearen nazioartekotzearen alde eginez.

Nafarroako 2013-1016 II. Nazioarteko Planaren barneko ekintza berri horrekin, enpresa bakoitzak 14.000 euroko diru-laguntza jasoko du pertsona bat urtebeterako gutxienez kontratatzeko. Eskaera egiteko epea asteazken honetan, hilak 24, hasiko da, eta urtarrilaren 7an amaituko. Deialdiaren oinarriak Nafarroako Aldizkari Ofizialen argitaratu dira gaur ([abenduaren 23ko NAO, 249. zk.](#)).

Laguntzak eskuratzeko, ETEek beren helbide fiskala Nafarroan izan beharko dute, eta baita nazioartekotzeko proiektu sendo bat ere. Enpresak berak aukeratuko du posturako pertsona egokia eta, horretarako, [Talentuaren PIN Banku](#)ra jo dezake; Nafarroako Gobernuaren datu-base bat da hura, eta nazioarteko profila duten profesional nafarrak biltzen dira bertan.

Hautagaiei dagokienez, oinarriek finkatzen dute Espainiako nazionalitatekoa edo Europar Batasuneko kide den estaturen batekoa izan beharko dutela; enpresan lan egin ez izana kontratua egin baino sei hilabete lehenago, eta enpresarekin inolako familia-loturarik ez izatea (kontratatzailea autonomia den kasuan salbu).

Kontratua lan-izaerakoa izango da, lanaldi osokoa, urtebetekoa gutxienez, eta enpresaren esportazio-jarduerari lotutakoa. Diru-laguntzaren emakida jakinarazten denetik, hurrengo hilabetearen barnean hasiko da.

Deialdi hori [ekonomia eta enpleguaren jarduera suspertzeko akordio](#)an jasotako neurrien barnean dago. Akordio hori iragan urrian sinatu zen, eta 545,5 milioi euroko inbertsioa jasotzen du.